**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN 46/2023 TXOSTENA**

**Gaia:** Lanpostuen Zerrenda aldatzea

**Espediente zenbakia:** IDA_ERA_0117 (2023)

**Espediente tramitatzailea:** Langileria saila

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.6 artikulua

## Aurrekariak

**Lehena.-** 2023ko ekainaren 5ean Langileria Saileko teknikariak hurrengo proposamena egin zuen:

"Lehenengoa: 2023ko ekitaldiko aurrekontu-plantilla aldatzea, aurrekontu orokorra onartzeko prozedura bera jarraituz, zaharren egoitzako zuzeneko arretako bi plaza amortizatuz.

Bigarrena: Zaharren egoitzako arreta zuzeneko zerbitzua berrantolatzearen ondorioz, Bermeoko Udaleko lanpostuen zerrenda aldatzea, zaharren egoitzako arreta zuzeneko bi lanpostu amortizatuz.

Hirugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluak ezarritakoa betez, Udaleko Negoziazio Mahai Orokorra deitzea."

**Bigarrena.-** 2023ko abuztuaren 3an Langileriako teknikariak hurrengo proposamena egin zuen:

"Lehenengoa: Bermeoko Udal plantillan eta lanpostuen zerrendan Antolakuntza eta teknologi berrien sailean honako plaza/lanpostuaren dotazioa gehitzea:



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Plaza izaera: Funtzionarioa

Administrazio Berezia

Azpieskala: Teknikoa

Lanpostua: Goi Mailako teknikaria

| Saila | Lanpostua | K | HE | DD | TL | ML | BO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ATB | Goi mailako teknikaria | 2 | 4 | OB data | A1 | 22 | 19.736,13 (*) |

(*) Balorazioa egin gabe

"

**Hirugarrena.-** 2023ko abuztuaren 24an Langileria saileko teknikariak hurrengo proposamena egin zuen:

"Lehenengoa: Argudioetan aipatutako legediaren arabera, Bermeoko Udaleko plantillan eta lanpostuen zerrendan behin-behineko langileari gordetako lanpostua sortzea:

Goi Mailako teknikaria

Izaera: Behin-behineko langilea

Lanpostua: Komunikazio arduraduna

Zerbitzua: Alkatetza

Baldintzak: Komunikazioko gradua izatea

4. Hizkuntza-eskakizuna

Azpitaldea: A1

Bigarrena: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 104. artikuluak xedatzen duenaren arabera, lanpostuari dagokion ordainsariak



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

ezartzea. Hirugarrena: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 104. eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.4 artikuluetan ezarritakoa betez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea."

Laugarrena.- Euskera saileko teknikari- trebatzaileak 2023ko urriaren 10ean proposatu du Bermeoko Udalak plantila organikoan sortuko duen goi mailako komunikazio arduradun lanpostuari 4. hizkuntza eskakizuna (C2) jartzea, eta Osoko Bilkurak lanpostu hori lanpostuen zerrendan sartzea erabakiko duen eguneko derrigortasun data ezartzea.

Bosgarrena.- Langileria saileko zinegotziak, ostera, 2023ko urriaren 11n hurrengo proposamena egin du:

**"Lehenengoa:** Bermeoko Udal plantillan eta lanpostuen zerrendan honako aldaketa hauek onartzea:

1. Zaharren egoitzan bizikidetza unitatea ezartzearen ondorioz arreta zuzeneko laguntzaileen plaza/lanpostu bi iraungitzea
2. Informatikako teknikariaren plaza/lanpostuaren dotazioa gehitzea
3. Behin behineko langileari gordetako plaza/lanpostua sortzea:

- Udalaren plantillan egin beharreko aldaketak:

| KARRERAKO FUNTZIONARIOAK<br>1.3. Administrazio Berezia<br>1.3.1. Teknikariak | Taldea | Dotazioa | Betegabeak |
|---|---|---|---|
| Goi mailako teknikariak | A1 | 5 | 4 |
| **LABORAL FINKOAK** | **Taldea** | **Dotazioa** | **Betegabeak** |
| Arreta zuzeneko laguntzaileak | C2 | 27 | 21 |
| **BEHIN BEHINEKO LANGILEA** | **Taldea** | **Dotazioa** | **Betegabeak** |
| Goi mailako teknikaria | A1 | 1 | - |

- Udalaren Lanpostuen Zerrendan burutu beharreko aldaketak:

| ALKATETZA (Sortzea) | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kod | Lanpostua | K | TL | ML | Osagarr | HE | DD | D | PN | HS | EB | Oharrak |

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

| Kod | Lanpostua | K | TL | ML | Osagarr | HE | DD | D | PN | HS | EB | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1111501 | Alkatetzako aholkularia | 1 | A1 | 21 | 18.833,44 | 3 | OB data | A | L | IA | GMT | |
| **ANTOLAKUNTZA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK (Dotazioa gehitzea)** | | | | | | | | | | | | |
| **Kod** | **Lanpostua** | **K** | **TL** | **ML** | **Osagarr** | **HE** | **DD** | **D** | **PN** | **HS** | **EB** | **Oharrak** |
| 1109502 | Goi mailako teknikaria | 2 | A1 | 22 | 19.736,78 | 4 | OB data | A | F | L | (6) | Hutsik |
| **GIZARTE ONGIZATERAKO SAILA (Lanpostu bi Iraungitzea)** | | | | | | | | | | | | |
| **Kod** | **Lanpostua** | **K** | **TL** | **ML** | **Osagarr** | **HE** | **DD** | **D** | **PN** | **HS** | **EB** | **Oharrak** |
| 3030121 | Arreta zuzeneko laguntz | 5 | C2 | 12 | 19511,94 | 1 | 92.01.01 | A | L | L | EG | Hutsik |
| 3030121 | Arreta zuzeneko laguntz | 5 | C2 | 12 | 19511,94 | 1 | 92.01.01 | A | L | L | EG | |
| 3030121 | Arreta zuzeneko laguntz | 2 | C2 | 12 | 19511,94 | 1 | 01.07.26 | A | L | L | EG | Hutsik 1 |
| 3030121 | Arreta zuzeneko laguntz | 2 | C2 | 12 | 19511,94 | 1 | 01.07.26 | A | L | L | EG | Hutsik |
| 3030121 | Arreta zuzeneko laguntz | 13 | C2 | 12 | 19511,94 | 1 | 01.07.26 | A | L | L | EG | Hutsik |

**Bigarrena**: Udal Plantillan eta Lanpostuen zerrendan burutu beharreko aldaketak onartu ondoren, Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda I eta II eranskinetan agertzen diren moduan geratuko dira."

Beraz, Langileria Saileko teknikariaren eta Euskera Saileko teknikari trebatzailearen irizpidearen kontra, 3. Hizkuntza eskakizuna jasotzea proposatu da. Espedientean ez dago Hizkuntza politikaren txostena eta ez da justifikatu proposatutako hizkuntza eskakizuna aldatzeko beharrizana.

Seigarrena.- Negoziazio mahaiko 8/2023 eta 9/2013 aktetan jaso denez, 2023ko abuztuaren 31n aho batez adostu da zaharren egoitzako zuzeneko arretako bi plaza amortizatzea. 2023ko urriaren 2ko negoziazio mahaian Lanpostuen Zerrendan Informatika teknikariaren lanpostuaren dotazioa batetik bira gehitzea adostu da eta Lanpostuen Zerrendan konfiantzazko lanpostua sortzea adostu da.

## Oinarri juridikoak

### 2.1. Aplikagarria den araudia



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea
- Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duena
- Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak onartzen duen Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzendua
- Abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena.
- Abenduaren 23ko 31/2022 Legea, 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea

**2.2. Proposatzen diren aldaketen edukiari buruz**

Kontuan izanda erabaki proposamena hurrengoak aztertuko dira txosten honetan:

2.2.1. Lanpostuen Zerrenda eta horien edukia

2.2.2. Plantilla eta horien edukia

2.2.3. Zuzeneko arretako bi plaza/lanpostu amortizatzea

2.2.4. Goi mailako teknikariaren plaza/lanpostua sortzea

2.2.5. Behin-behineko plaza/lanpostua sortzea

**2.2.1. Lanpostuen Zerrenda eta horien edukia**

Hasteko, oinarrizkoa den urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilea, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Zuzendua onartzen duena, aipatu behar dugu, eta Lege horren 74. artikulu, hain justu ere. Artikulu horretan hitzez hitz zera esaten da: *"Las Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares que comprenderán, al menos, la denominación de los puestos, los grupos de clasificación profesional, los cuerpos o escalas, en su*



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*caso, a que estén adscritos, los sistemas de provisión y las retribuciones complementarias. Dichos instrumentos serán públicos".*

Zentzu berean, abenduaren 1eko 11/2022 Euskal Enplegu Publikoari buruzko legeak dio 45. artikuluan:

*"1. Las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual las administraciones públicas vascas racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal, definen los requisitos exigidos para su desempeño y clasifican cada uno de los puestos de trabajo, de acuerdo con los criterios de eficacia, eficiencia y racionalidad organizativa.*

*2. Las relaciones de puestos de trabajo incluirán, conjunta o separadamente, la totalidad de los puestos de trabajo de naturaleza estructural que se hallen dotados presupuestariamente reservados a personal funcionario, personal laboral y personal eventual.*

*3. Las relaciones de puestos de trabajo, así como sus modificaciones, se publicarán en el «Boletín Oficial del País Vasco», o en el del territorio histórico respectivo cuando correspondan a diputaciones forales o entidades locales. Los efectos derivados de las relaciones de puestos de trabajo comenzarán a partir del día siguiente a su publicación, salvo que expresamente se prevea otra fecha. Todo ello, a efectos de garantizar la transferencia de los datos contenidos.*

*4. A fin de facilitar el conocimiento de la situación de las relaciones de puestos de trabajo en cada momento y de facilitar su gestión, los órganos competentes en materia de empleo público actualizarán periódicamente la información sobre las mismas. Asimismo deberán estar expuestas en la sede electrónica de cada administración de manera consolidada, transparente y permanentemente actualizada.*

*5. No será precisa la modificación previa de la relación de puestos de trabajo en el supuesto de que los departamentos competentes en materia de empleo público de las respectivas administraciones públicas vascas procedan al*



| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34 | EXPEDIENTE ::<br>2023IDA_ERA_0117<br>Datea: 03/08/2023<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

*cambio de adscripción de los puestos de trabajo del personal funcionario por reasignación, readscripción o redistribución de efectivos, siempre que el nuevo destino se encuentre ubicado en el mismo municipio –o campus, en el caso de la Universidad del País Vasco– en el que anteriormente prestaba servicios el personal afectado y no conlleve una modificación de sus condiciones de trabajo. Dicha circunstancia debe ser objeto de inclusión en la primera modificación de la relación de puestos de trabajo que se lleve a efecto desde la fecha en la que se produjo la readscripción.*

*6. En todo caso, la creación, supresión o modificación de puestos de trabajo se realizará a través de las relaciones de puestos de trabajo. De igual manera, las modificaciones de la estructura orgánica exigirán simultáneamente la modificación de las correspondientes relaciones de puestos de trabajo o instrumentos que las sustituyan.*

*A los efectos de lo dispuesto en este apartado, no se tendrán en consideración las modificaciones que tan solo afecten a la denominación de los departamentos o de los órganos a los que estén adscritos los puestos de trabajo y no afecten al contenido funcional.*

*7. Las relaciones de puestos de trabajo se ajustarán a las previsiones presupuestarias, de tal forma que no podrán contener puestos cuya dotación no pueda ser atendida con los créditos contemplados en las plantillas presupuestarias para el ejercicio correspondiente.*

*8. …*

*9. Las administraciones forales, locales y la Universidad del País Vasco aprobarán sus relaciones de puestos de trabajo por el órgano que resulte competente de acuerdo con su propia normativa.”*

Lege bereko 46. artikuluan Lanpostuen Zerrendaren edukia jaso da:

*“1. Las relaciones de puestos de trabajo indicarán necesariamente para cada uno de ellos los siguientes datos:*

CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*a) La denominación del puesto y las dotaciones que existan de cada uno de ellos.*

*b) El departamento o centro orgánico al que se halle adscrito.*

*c) En el caso de puestos reservados a personal funcionario, los grupos o subgrupos de clasificación profesional y los cuerpos, escalas u otros sistemas a los que estén, en su caso, adscritos. Los puestos de trabajo podrán adscribirse indistintamente a más de un grupo, subgrupo, cuerpo o escala.*

*d) En el caso de puestos reservados a personal laboral, el grupo profesional que, en cada caso, corresponda.*

*e) El sistema de provisión, ya sea concurso o libre designación, y, en su caso, la determinación de las administraciones públicas a cuyo personal se encuentre abierta dicha provisión.*

*f) Las retribuciones complementarias vinculadas al puesto de trabajo.*

*g) El perfil lingüístico del puesto de trabajo y, en su caso, la fecha de preceptividad.*

*h) El régimen de dedicación.*

*i) El carácter singularizado o normalizado del puesto de trabajo.*

*2. En las relaciones de puestos de trabajo se concretarán, asimismo, los requisitos específicos que, en su caso, se exijan para el desempeño de un determinado puesto de trabajo.*

*3. Únicamente a través de las relaciones de puestos de trabajo se podrá llevar a efecto la supresión de puestos de trabajo o de dotaciones como consecuencia de los procesos de análisis de cargas de trabajo, previa negociación con la representación de personal.*

*…”*

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34 | EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117<br>Datea: 03/08/2023<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

Apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikuluak xedatzen du Toki erakundeek haien erakundeko Lanpostuen Zerrendaketa egin beharko dutela funtzio publikoaren inguruko oinarrizko legediak dioenaren arabera. Gaineratzen du Estatuari dagokiola Lanpostuen Zerrendak, lanpostuen deskripzioak eta horien eraketarako bete beharreko baldintzak lantzeko oinarri hartu beharko diren arauak ezartzea.

Tokiko Erregimenaren eremuan indarrean dauden Xedapen Legalen Testu Zuzendua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 126.4. artikuluak xedatu du Lanpostuen Zerrendak funtzio publikoaren oinarrizko legedian jasotako edukia izan beharko dutela eta garatu beharko direla apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikuluan jasotako arauak oinarritzat hartuz.

Hori horrela, ondorioztatzen da aurkeztutako proposamenean ez direla jaso hurrengoak: zer kidego, eskala edo beste sistematara adskribatuta dagoen; Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala; Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den; eta lanpostuaren baldintza bereziak.

### 2.2.2. Plantilla eta horien edukia

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluak dio:

*"1. Corresponde a cada Corporación local aprobar anualmente, a través del Presupuesto, la plantilla, que deberá comprender todos los puestos de trabajo reservados a funcionarios, personal laboral y eventual. Las plantillas deberán responder a los principios de racionalidad, economía y eficiencia y establecerse de acuerdo con la ordenación general de la economía, sin que los gastos de personal puedan rebasar los límites que se fijen con carácter general."*

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 51.artikuluak aurrekontu-plantillen inguruan zera dio:



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7 | Sinadurea eta datea JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34 | EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117 Datea: 03/08/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

*"1. Los presupuestos de las administraciones públicas vascas determinarán las plantillas presupuestarias o la relación de plazas dotadas presupuestariamente que corresponden a cada puesto de trabajo, así como el grupo o el subgrupo de clasificación al que se adscriban y el cuerpo, escala, opción y especialidad, en su caso, al que pertenezcan. En el supuesto de plazas laborales, se expresará el número y su adscripción al grupo profesional en que, en su caso, se clasifique el personal laboral. En el caso de dotaciones para personal eventual, se expresará de forma individualizada, respecto de cada puesto de trabajo, la retribución fijada para dicho personal.*

*2. Las plantillas presupuestarias correspondientes a personal funcionario público relacionarán las consignaciones crediticias ordenadas por los siguientes conceptos:*

*a) Retribuciones básicas correspondientes a cada grupo o subgrupo de clasificación.*

*b) Pagas extraordinarias.*

*c) Retribuciones complementarias de acuerdo con lo previsto en esta ley.*

*3. Las plantillas presupuestarias del personal laboral incluirán, asimismo, las correspondientes dotaciones de créditos, ordenadas según los conceptos retributivos abonables en función de lo establecido en los convenios colectivos que resulten de aplicación.*

*…."*

Aurkeztutako proposamenean hurrengoak zehaztea falta da: funtzionarioen kasuan zein kidego, eskala, aukera eta, hala badagokio, espezialitatetakoak diren eta kreditu-zuzkidurak. Lan-kontratuko plazen kasuan, kreditu zuzkidurak, eta behin-behineko langileentzako dotazioei dagokienez, banan-banan zehaztuko da lanpostuari ezarritako ordainsariaren zenbatekoa.

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

**2.2.3. Zuzeneko arretako bi plaza/lanpostu amortizatzea**

Aurretik komentatu duguna kontuan izanda, zuzeneko arretako bi lanpostu amortizatzeko jarraitutako prozedura eta egindako proposamena egokia da.

**2.2.4. Goi mailako teknikariaren plaza/lanpostua sortzea**

Lanpostuen Zerrendak Udalaren beharrizanak antolatzeko tresna egokiak dira. Horregatik, Udalak lanpostu berriak sor ditzake eta lanpostu berriak sortu behar ditu egiturazkoak badira. Beti ere, lau arau hauek kontuan izanda:

- Justifikatutako sortzeak burutzea: Espedientean justifikatu da.
- Aurrekontuan aurreikusita egotea eta zuzkidura izatea.
- Lan Eskaintza Publikoak onartzen direnerako abenduaren 23ko Estatuko 2023 urterako Aurrekontu Orokorren Legearen 20. artikuluan zehaztutako mugak errespetatzea**.**
- Goi mailako teknikariaren lanpostua betetzen denerako, gogoratu behar da Estatuko 2023 urterako Aurrekontu Orokorren Legean 20. artikuluaren bosgarren atalean, aurreko urteetatik etorri den debekua ere jaso dela:

*"Artículo 20. 1. La contratación de personal laboral, así como los nombramientos de personal funcionario y estatutario habrán de realizarse con carácter fijo, indefinido o permanente, según proceda.*

*No se podrá contratar personal temporal, ni realizar nombramientos de personal estatutario temporal y de personal funcionario interino excepto en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables, en los supuestos y de acuerdo con las modalidades previstas por el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, en su redacción dada por Real Decreto-ley 32/2021, de 28 de diciembre, el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, en su redacción dada por la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, así como en el resto de normativa aplicable."*



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hori guztia aintzat hartuz, lanpostua sortzearen inguruan, justifikazio txostenetik ondorioztatzen denez, goi mailako teknikari lanpostuaren beharrizana (informatikaria) estrukturala da; beraz, ezinbestekoa da lanpostu hori Langileen Zerrendan jasotzea, baina kontsignazio nahikoa izan behar du.

**Lanpostuaren balorazioa**

Lanpostuaren balorazioa dela eta, azpimarratu behar da idazkari honek hainbatetan aholkatu duenarekin lotuta eta Langileria teknikariak bere txostenean adierazitakoarekin lotuta, lanpostuaren balorazioa egin behar izan dela lanpostua sortzeko eta balorazio hori modu objektiboan egin behar izan dela. Dagokion espedientean ez da ageri balorazio objektiborik egin denik. Izan ere, nahiz eta dotazio gehitze bati buruz ari garen, espedientean ez da justifikatu nola baloratu den indarrean dagoen lanpostuaren, ezta lanpostu berriaren balorazioa.

Auzitegi Gorenak hainbestetan argitu duen moduan lanpostu berriak sortzerakoan dagokion balorazio objektiboa egin behar da. Horrelako balorazio objektiboak egin gabe onartu diren Lanpostuen Zerrendak, guztiz deusezak izango lirateke Zentzu horretan, Auzitegi Gorenaren 2012ko abenduaren 4ko 8355/2012 epaia daukagu, Barakaldoko Udalean hartutako erabakiari buruzkoa, non 2. argudio juridikoan hitzez hitz esaten den:

*"Luego, la Relación de Puestos de Trabajo que examinamos aprueba la creación de diversos puestos de trabajo , los clasifica de conformidad con un código de identificación, un requisito de titulación para su provisión y un perfil lingüístico, les atribuye un nivel de complemento de destino, así como una cuantía a devengar por complemento específico, y modifica además los complementos de destino y específico de puestos ya existentes, todo ello sin haber efectuado una previa valoración, con omisión del procedimiento establecido a tal efecto por la Corporación y en base a un proceso analógico o por asimilación que ni está previsto en la normativa aprobada por el Pleno, ni aparece debidamente documentado en el expediente administrativo,*



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*circunstancias que tiñen de arbitrariedad la Relación de Puestos de Trabajo . Por tanto, carece de la obligada motivación la actuación administrativa de ordenación de personal expresada en la Relación de Puestos de Trabajo impugnada, y en el particular alegado por la actora, deja sin base objetiva el establecimiento de las retribuciones complementarias para los puestos de nueva creación ¿que se identifican en los Anexos I y II obrantes a los folios 67, 68 y 69 del expediente administrativo-, así como la modificación de los complementos de destino y específico en los puestos ya creados -que resulta ser un único puesto, Encargado de las Brigadas Municipales, según los mismos Anexos y a la vista de la RPT publicada en el BOB de 7 de julio de 2004-. En suma, en lo que a estos puestos de trabajo se refiere, la actuación administrativa recurrida infringe la garantía de motivación de los actos administrativos dictados en el ejercicio de facultades discrecionales( artículo 54.1.f) de la Ley 30/92 )."*

Beraz, goi mailako teknikariaren lanpostua Lanpostuen Zerrendan sortzea dagokion balorazio objektiboa egin barik, ez dator zuzenbidearekin bat.

**2.2.5. Behin-behineko plaza/lanpostua sortzea**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 89. artikuluan ezartzen duenez, toki-erakundeen zerbitzura dauden langileak karrerako funtzionarioak, lan-zuzenbideko erregimenean kontratatutakoak eta konfiantzako edo aholkularitza bereziko lanpostuak betetzen dituzten behin-behineko langileak izango dira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 104. artikuluan ezartzen du behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak udalbatzak zehaztuko dituela agintaldiaren hasieran, eta zehaztapen horiek urteko aurrekontuak onartzean bakarrik aldatu ahal izango direla.

Bere izendapena eta kargu-uztea librea da eta Alkatetzari dagokio. Nolanahi ere, argi izan behar da automatikoki utziko dutela kargua, konfiantza- edo



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

aholkularitza-eginkizuna duen agintariaren kargua uzten denean edo agintaldia amaitzen denean (nahiz eta Alkate berak karguan jarraitu, agintaldia amaitzen denean automatikoki utziko da kargua)

Izendapena, ordainsarien araubidea eta dedikazioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 104 bis artikuluan zera dio, hitzez hitz:

*“Personal eventual de las Entidades Locales.*

*1. Las dotaciones de puestos de trabajo cuya cobertura corresponda a personal eventual en los Ayuntamientos deberán ajustarse a los siguientes límites y normas:*

*…*

*c) Los Ayuntamientos de Municipios con población superior a 10.000 y no superior a 20.000 habitantes podrán incluir en sus plantillas puestos de trabajo de personal eventual por un número que no podrá exceder de dos.*

*…*

*5. Las Corporaciones locales publicarán semestralmente en su sede electrónica y en el Boletín Oficial de la Provincia o, en su caso, de la Comunidad Autónoma uniprovincial el número de los puestos de trabajo reservados a personal eventual.*

*6. El Presidente de la Entidad Local informará al Pleno con carácter trimestral del cumplimiento de lo previsto en este artículo.”*

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 176. artikuluak honako hau gehitzen du:



STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34 | EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117<br>Datea: 03/08/2023<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

• Aldi baterako langileek aurretik zehaztu dugun Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 104. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute.

• Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuak plantillan agertu beharko dira.

• Behin-behineko langileek zuzendaritza-izaerako lanpostu jakin batzuk bete ahal izango dituzte, Korporazioko lanpostuen zerrendan sartuta daudenak, Estatuak lanpostu horiek egiteko ematen dituen arauetan xedatutakoaren arabera. Kasu horietan, behin-behineko langileek lanpostu horiek bete ditzaketen funtzionarioei eskatzen zaizkien baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

• Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostua betetzea ez da inoiz merezimendu izango funtzio publikoan edo barne-sustapenean sartzeko.

Dagokigun espedientean, bai Langileria Saileko teknikariak, bai Euskera Saileko teknikari-trebatzaileak 4. Hizkuntza Eskakizuna jasotzeko proposamena egin dute. Espedientean ez da ageri Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren nahitaezko txostena. Beraz, txosten hori barik behin-behineko lanpostua sortzea ez dator zuzenbidearekin bat.

Horretaz gain, espedientean ez da ageri justifikazioa txosten teknikoen kontra 3. Hizkuntza Eskakizuna jasotzeko.

**2.3. Jarraitu beharreko prozedurari buruz**

Hauxe da jarraitu beharreko prozedura:

a) Langileria saileko teknikariak txostena egin behar du.

Espedientean txostenak ageri dira.

b) Langile Publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34 eta 37.1.c) artikuluek xedatutakoa betetzeko asmotan, negoziazio-mahai orokorrarekin Lanpostuen Zerrendaren aldaketa negoziatu beharko da; ez, ostera, plantillaren aldaketa.



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Izan ere, gogoratu behar da Lanpostuen Zerrenda edo horren aldaketa substantzialak negoziatu behar direla.

Aldaketa sustantzian moduan ulertzen da: lanpostu berriak sortzea, lanpostuak iraungitzea, lanpostuen izaera (funtzionarioa, laborala, ebentuala…) aldatzea, lanpostuetara sartzeko sistema aldatzea, destino osagarriak zein berariazko osagarriak aldatzea, klasifikazioak aldatzea… Ostera, antolaketarekin erlazioa duten aldaketak ez dira negoziatu behar (sailen aldaketak, lanpostuen kokapenak, eskatutako titulazioak). Hori guztia Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 2ko edo 2008ko urriaren 20ko epaien arabera eta EAEko Auzitegi Nagusiaren 1998ko ekainaren 20ko epaiaren arabera (Errek. 1684/2004).

Kasu honetan negoziatu beharreko Lanpostuen Zerrendaren aldaketen aurrean gaude, beraz, ezinbestekoa da negoziazioa.

Espedientean negoziazio mahaiko aktak jaso dira.

c) Hizkuntza eskakizunaren inguruan, apirilaren 15eko 86/1997 Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen Dekretuaren 23. artikuluarekin bat, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.2.n artikuluarekin bat eta 11/2022 Legearen 187 artikuluarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikako txostena eskatu behar izan da, bai goi mailako teknikariaren lanpostua sortzeko, bai behin-behineko lanpostua sortzeko.

Nahitaezko eta ez loteslea den txostena dago espedientean soilik goi mailako teknikariaren lanpostua sortzeko; ez, ostera, behin-behineko lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ezartzeko.

d) Erabaki proposamena egin beharko da

Kasu honetan, azken erabaki proposamena politikoa da, proposamen teknikoarekin bat ez datorrelako.

e) Udal kontuhartzailearen txostena beharko da.

Espedientean ez dago kontuhartzailearen txostenik.

f) Idazkariaren txostena beharko da

g) Proposamena Informazio Batzordeko irizpenaren esku utziko da, hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan txertatua izan dadin

h) Osoko bilkurako hasierako erabakia beharko da gehiengo soilez onartua



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7 | Sinadurea eta datea: JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34 | EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117 Datea: 03/08/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

i) Plantilla eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketaren erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da 15 laneguneko epean interesdunek, hala badagokie, dagozkien erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan alegaziorik egongo ez balitz, erabakia behin betiko onartutzat emango da.

j) Alegaziorik egongo balitz, Informazio batzordeak diktaminatu eta Osoko bilkurak behin betiko erabakia hartu beharko du.

k) Behin betiko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udal webgunean argitaratuko da.

l) Behin betiko erabakia Estatuko Administrazioari eta Erkidegoko Administrazioari helarazi beharko zaie, 30 eguneko epearen barruan.

**3. Ondorioak**

Aurreko guztia kontuan hartuz, lanpostuen zerrenda aldatzeko erabaki proposamenari **kontrako txostena** egiten zaio. Laburbilduz, hauek dira zuzendu beharrekoak:

- Lanpostuen zerrendan ez dira jaso hurrengoak: zer kidego, eskala edo beste sistematara adskribatuta dauden lanpostuak; Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala zein den; Lanpostuen izaera berezia ala normalizatua den; eta lanpostuen baldintza bereziak zeintzuk diren.
- Plantillan ez dira zehaztu hurrengoak: funtzionarioen kasuan zein kidego, eskala, aukera eta, hala badagokio, espezialitatetakoak diren eta kreditu zuzkidurak. Lan-kontratuko plazen kasuan, kreditu zuzkidurak, eta behin-behineko langilearen kasuan, lanpostuari ezarritako ordainsariaren zenbatekoa.
- Goi Mailako Teknikariaren lanpostua sortzeari buruz, lanpostu berria sortzeko dagokion balorazio objektiboa egin behar da.
- Behin-behineko lanpostua sortzeari buruz, espedientean ez dago Hizkuntza politikaren txostena eta ez da justifikatu teknikoki proposatutako hizkuntza eskakizuna aldatzeko beharrizana.
- Espedientean kontuhartzailearen txostena falta da.



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

- Espedientean zaharren egoitzako arreta zuzeneko plaza biak amortizatzeko agiriak “tramiteen” atalean, espediente barnean, jaso behar dira.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalte barik. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta osoko bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2023ko urriaren 11n

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



CSV: 07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000DB73700T2W9I6D5F9H7

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/10/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/10/2023 16:50:34

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0117
Datea: 03/08/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia